


markeliñe



KARTOIBIRAKA

**MUNDUARI BIRA
80 KUTXATAN**



“KARTOIBIRAKA-MUNDUARI ITZULIA 80 KAXATAN”

Zenbat magia sartzen da munduan?

Eta, bidaia batean?

Ezusteko guzti horiek 80 kaxatan sartuko litzaizkiguke?

Julio Vernek abentura bidaia eskaini zigun “*Munduari itzulia 80 egunetan*”.

Nobela horrek urrun dagoena, ezezaguna dena, ezagutzeko ilusioa pizten digu. Imajinaziozko bidaia proposatzen digu munduan zehar.

Literaturako erreferentzia hori oinarritzat hartuz, imajinazioan zehar, ezustez eta iradokizun gozoz beterik, bidaiatzeko espiritu hori *antzerkira* nola eraman galdetu genion gure buruari.

Horrela sortu zen “*Kartoibiraka-Munduari itzulia 80 kaxatan*”.



Gure protagonistak errutinan bizi diren eta biltegi batean lan egiten duten hiru pertsonaia dira. Aldian behin kamioi bat heltzen da, eta bertako kaxak jaisten dituzte eta,


beste batzuetan, beste kamioi batzuk heldu eta kaxak bertan sartzen dituzte.

Baina, une jakin batean, beharbada errutinaren aspertasuna ere agortu egiten delako, beraien artean pertsona makinatik bereizten duen zerbait sortzen da: **jolasteko eta sortzeko gaitasuna.**

Eta, orduan, kaxa bat beste gauza bat bilakatzen da, esanahi bat baino gehiago eskuratuz, gure imajinazioak eskaintzen dizkigun beste.

Merkantilizazioak jolasa “jostailu adimendunaren” protagonismora murriztu duen testuinguru honetan, kartoizko kaxa xume batek jolasari bere izaera itzultzeko erronka adierazten du: **asmatu, abstraitu eta iradoki.**

Biltegitik irten gabe, **globoz, itsasontziz edo gameluz,** istorio



honetako protagonistek munduari bira emango diote, baina 80 kaxatan. **Eta hitzik gabe!**, izan ere, ikusleak, haurra zein heldua izan, bere hitzak aukeratuko baititu keinu bakoitzean, bai eta eszena guztiek iradokitzen dizkieten paisaien koloreak ere.

Ikuskizun honek, galduta edo ahaztuta dagoen jolasteko modu batera itzularaztea lortzen du. Gogoratzen digu garai batean gure irudimena zela jostailua gidatzen zuena.

Horregatik, “**Kartoibiraka-Munduari itzulia 80 kaxatan**” lanean sormena errebindikatzen da bizitzako garai guztietan indarrean egon beharreko jarrera gisa. Izan ere, Markeliñen uste dugu badagoela leku komun bat haurren eta nagusien artean: magiaren eta ezustekoaren gunea. Eta ikuskizun hau, itxuraz xumea bada ere, benetan liluragarria da.



“KARTOIBIRAKA-MUNDUARI ITZULIA 80 KAXATAN”

1998an estreinatu zenetik, **600 emanaldi baino gehiago izan ditu.**


Hainbat herrialdetan ikusi ahal izan da, Frantzia, Portugalen, Finlandian, Marokon, Suitzan, Kolonbian, Dominikar Errepublikan, Irlandan...

“Ikuskizun hoberena”, “Zuzendaritza hoberena”, “Talde Interpretazio hoberena” eta “Argiztapen hoberena” Sariak lortu zituen Xixongo FETEN Haurren Antzerki Jaialdian.

1999an MAX Sarien finalista izan zen.

2000. urtean **“Haurrentzako ikuskizunik Hoberenaren” MAX Saria** lortu zuen.

Gehiago ere egon dira, guztiak ere liluragarriak.



ARTISTA TALDEA

Gidoia eta Zuzendaritza:	MARKELIÑE
Antzezleak:	JON KEPA ZUMALDE AINTZANE CRUJEIRAS PACO TRUJILLO
Eszenografia:	MARIJO DE LA HOZ
Jantziak:	PAQUI RICO
Argien diseinua / Argiztapena:	AITOR AGORRIA
Ikuskizuna hemen estreinatu zen:	ZORNOTZA ARETOA



Markeliñek oso estimo pertsonaia erabili sortzen ditu bere ikuskizunak. Egiteko modu horrek ikusle guztien, txikien zein handien, aurrean, originaltasunez, imajinazioz betetako sorkuntza lan harrigarriak proposatzen dituen talde gisa definitzen du taldea.

MARKELIÑEren ikuskizunen ezaugarri nagusia dramaturgia sendoa da, eta, eszenako “aurkikuntzen”, musikaren eta argiztapen zainduaren laguntzaz, ikusleak erakartzea lortzen dute.

Esparru bakoitzean **Markeliñek** bere hizkuntza aurkitu du. Objektuen, estetiken eta hizkuntzen inguruan egindako ikerketa lanak ikuskizunetan hautematen diren lorpenak eragin ditu. Kalean, espazio handiak erabiltzen direnean, gauaren magiak babestuta, musikak emozioak bideratzen ditu, eta paseatzen ari den hori engantxatzea lortzen du, aurpegi anitzeko istorioen bitartez.

Hala ere, haurrei edo familiei zuzendutako lanetan MARKELIÑEK asko atsegin du helduen eta haurren toki komun horiek aurkitzea, bi taldeak gauza berberengatik harritzen diren leku hori. Oso aberasgarria da guretzat ikusle horientzat sortzea, begirada garbia dutelako, harrituak izateko gai direlako eta interesatzen ez zaiena baztertzeke bezain zintzoak direlako.

Keinuetan eta ikusmenean oinarritutako hizkuntzaren bilaketa horrek presentzia finkatua eman dio Markeliñeri antzerkiaren panoraman.

Ibilbide horretan, ikuskizun guztietan elementu komunak daude:

- **Sorkuntza lan originalaren** aldeko apustua eta
- **Eszenako kode pertsonalaren** bilaketa.

Eta, jakina, bere antzezleek keinuez egiten duten erabilera bikaina.

⇒ Gaur egun, **MARKELIÑE** honako hauek osatzen dute: Iñaki Egiluz, Joserra Martínez, Jon Kepa Zumalde, Paco Trujillo, Gloria Hernández Olaia Larrucea eta Marijo de la Hoz.

⇒ **Antzezle laguntzaileak:** Itziar Fragua, Sandra Fdez. Aguirre, Fernando Barado, Jon Koldo Vázquez, Aintzane Crujeiras.

IKUSKIZUNEN HISTORIALA

1986	MUDO FANTASTICO	<i>Aretoko ikuskizuna</i>
1987	IN EXTREMIS	<i>Aretoko ikuskizuna</i>
1988	ESCALADA URBANA	<i>Kaleko ikuskizuna</i>
1989	PLUMAS CELESTIALES	<i>Aretoko ikuskizuna</i>
1991	ARMAGEDON	<i>Kaleko ikuskizuna</i>
	<i>Ercilla Saria 91</i>	
	<i>Birak Frantzian, Beneluxen, Austrian</i>	
1993	ENTRETEJAS	<i>Aretoko ikuskizuna</i>
	<i>Azpeitiko Jaialdiko 2. saria</i>	
1994	KUBIERNO	<i>Kaleko ikuskizuna</i>
1996	LA GARBOS.A.-KALE GORRIAN	<i>Aretoko ikuskizuna</i>
	<i>Azpeitiko Jaialdiko Kritikaren eta Ikusleen Saria.</i>	
	<i>Arriola Saria.</i>	
1997	TATAPA	<i>Haurrentzako</i>
	<i>ikuskizuna</i>	
1998	KARTOI BIRAKA- LA VUELTA AL MUNDO EN 80 CAJAS	<i>Haurrentzako ikuskizuna</i>
	<i>Ikuskizun hoberenaren, Zuzendaritza hoberenaren,</i>	
	<i>Interpretazio hoberenaren, Argiztapen hoberenaren Saria</i>	
	<i>F.E.T.E.N. 98</i>	
	<i>MAX 99 Sariko finalista</i>	
	<i>Haurrentzako ikuskizun hoberenaren MAX Saria 2000</i>	
	<i>Europar zehar hainbat Jaialdietan parte hartu du.</i>	
1999	ALÓ EUROPA?	<i>Kaleko ikuskizuna</i>
2001	MAMBRU	<i>Haurrentzako ikuskizuna</i>
	<i>Zuzendaritza hoberenaren, Interpretazio hoberenaren, Soinu Banda</i>	
	<i>Hoberenaren Saria F.E.T.E.N. 2001</i>	
	<i>Estatu mailako ikuskizun hoberenaren saria TEATRALIA 2001</i>	
	<i>Europa zehar hainbat Jaialdietan parte hartu du.</i>	

2001	UNDERGROUND	<i>Aretoko ikuskizuna</i>
2002	DSO	<i>Kaleko ikuskizuna</i>
	<i>Euskal Ikuskizunik Hoberenaren Saria 2002ko LEIOAKO JAIALDIA</i>	
	<i>Kaleko ikuskizun Hoberenaren Saria 2002ko FIRA DE TARREGA</i>	
	<i>VilaRealeko Jaialdiko Ikuskizun Hoberenaren Saria, ikusleen bozketaz.</i>	
	<i>Epaimahaiaren Saria Formatu Handiko ikuskizun Hoberenari Valladolid,</i>	
	<i>2003.</i>	
	<i>Colombia eta Hego- Koreako Jaialdian parte hartzailea.</i>	
2002	PUNTO.RABO	<i>Aretoko ikuskizuna</i>
2004	IGANDEETAN, PIRATAK JAI	<i>Haurrentzako ikuskizuna.</i>
2004	LAU BIHOTZ	<i>Aretoko ikuskizuna</i>
	<i>2005eko Guadalajarako Jaialdiko Ikuskizun Hoberenaren Saria</i>	
	<i>2005eko Guadalajarako Jaialdiko Zuzendaritza Hoberenaren Saria</i>	
2005	CARBON CLUB	<i>Kaleko ikuskizuna</i>
	<i>2. Saria Torrejon de Ardoz-eko Abangoardiako</i>	
	<i>Arteen I. Jaialdian.</i>	
	<i>Bi urte jarraian NATIONAL THEATRE OF LONDONek antolatutako jaialdian</i>	
	<i>parte hartu du.</i>	
2007	TXITXARRA ETA INURRIA	<i>Haurrentzako ikuskizuna</i>
	<i>Umeei zuzendutako antzezlan hoberenaren Saria. Toledoko Rojas</i>	
	<i>Antzokiaren XVIII. Edizioaren Saria, 2010.</i>	
	<i>Hego eta Erta- Ameriketatik antzeztu den ikuskizuna.</i>	
2008	TERAPIA?	<i>Kaleko ikuskizuna</i>
2008	TERAPIA?-ARETOA	<i>Aretoko ikuskizuna</i>
2010	UHARTE EZEZAGUNA	<i>Haurrentzako Ikuskizuna</i>
2011	ANOMALIA MAGNETIKOA	<i>Kaleko ikuskizuna</i>
2012	HAREAZKO IPUINAK	<i>Haurrentzako ikuskizuna</i>



Espanjalaisten klovnin laatikosta löytyy koko maailma.

Juuri nyt, juuri meille

► Espanjalaisten laatikkoshow hurmasi sadat lapsikatsojat

► Turmin mittaisena karvan verran pirkki, muuta entimmäkseen riemulikkaita hauska oli espanjalaisen Markeline-ryhmän *Maailman ympäri 80 laatikossa* -esitys. Se lunasi *Bravo!*-festivaalin pienten katsojain sydämet Savoy-teatterin lämpödyessä katsomossa.

Aikuisenkin silmään siinä on aina jotain erityistä, kun sadat pikkulapset pitävät iloisia yhänsä teatteriesityksestä aamulla kello 10.

Sekä on nimittäin koettu, ettei mikään rahansa koipaa. Lapset eivät, mikä on työssä. Espanjalaisten klovneria oli, siis

TEATTERI
BRAVO! KESTÄVÄÄN
HELSINKI 2000
Maailman ympäri 80 laatikossa. Bravo-festivaali Savoy-teatteri. Käsikirjoittajat: Kepa Zumbado, Anna Mather ja Paco Trujillo.

omassa lajissaan, estottoman ja rajattoman mielluutuksen viiltäminen ajatuksellisesti ja erittäin konkreettisesti ja ymmärrettävistä palasista rakentuneessa.

Kolme varastotyöläistä rahaa laatikkoja kuumassa-autoon. Työn väleissä he ziematuvat mielluutusmarkkeliyönnel laatikkojen osoitteita ja oviin suuttajain tutkaillessa.

Haalareihin asutetut dounarikkevat rakentavat meille väpöä, pelkittämisestä, tuikeista, kutsuun, kinnat ja raatit, kulttuurin, Argentiinan, tanssitaiteita ja Amerikkaa, tanssitaiteita.

Eri maastoja kuvaavat vaatteet olivat kineetia, mutta ideat ja matkailuilla, nähtävyyksillä, viikkua vastustamassa. Oli helppo antaa anteeksi, sillä Afriikka oli toon toon ja Kuba ääneä ja ääneä, kun esityksen painopiste oli muussa, itse hokeamassa ja tuloksen hokeamassa.

Näytelmät (silloin kaiken laatuksella, jota sironella, sekoitettiin, mutta silti ensikohtaan, maan ja kipeästi. Tämä tehtiin juuri nyt, juuri meille, juuri tänä aamuna. Sehin onkin teatterielämyksen kaikki kaikessa. Jukka Kajava

HELSINGIN SANOMAT, 00/03/22

Kaxekin egindako ikuskizunak haurrak liluratu ditu.

BRAVO! jaialdian, espainiar antzezleen ikuskizun honek haurren bihotzak lapurtu ditu, ikuskizunerako goraino beterik egon den SAVOY antzokian.

Helduek ere zerbait berezia sentitzen dute 300 haur "pozez gainezka" daudenean antzokian.

Haurrek badakite zer dagoen ondo eta zer ez: espainiar taldearen clown jolas hau mugarik gabeko imajinazio jolasa da. Ikuskizunaren aldiak oso argiak, eta oso erraz ulertzeko modukoak dira. Ikusle guztiak liluratu dituzte.

Antzezleen lana "zoragarria" da, ikusleak erakartzeko ahal duten guztia egiten dute.

Ikuskizun hau guretzat zegoen egina, eta guk gehien behar genuen unean. Eta bihotz handiz ere egin dute. Hori da antzerkiak duen gauzarik garrantzitsuena. Hori da

Finlandian behar genuena, oso gutxitan ikusten den kalitatez egindako antzerki freskoa eta desberdina.

MARKELIÑE

Biltegitik irten gabeko txangoak

"KARTOIA BIRAKA"

Ekoizpena: **MARKELIÑE**

Gidoiaren Oinarria: **MARKELIÑE**

Eszenografia: **MARIJO DE LA HOZ**

Zuzendaritza: **MARKELIÑE**

Argiak: **AITOR AGORRIA**

Aktoreak: **JON KEPA ZUMALDE,**

ANA MEABE, PACO TRUJILLO

MARTXOAK 7 MARZO (17.00)

ZORNOTZA ARETOA

JOSEBA GOROSTIZA

Antzerkiaren zeregina ametsak egia bihurtzea bada, bete betean asmatuko du Markeliñe taldeak bere hurrengo lanarekin. Helburu horrekin, *Kartoi-biraka* antzezlan berriak haurren irudimenarekin jolasten du, eta era berean toki itxi batetik irten gabe nola bidaiatu da proposatzen diguna.

Beraz, magia, dibertsioa eta ezustek dituen protagonista talde zornotzarrak martxoan jendearenganatu duen bederatzigarren emaitzak. Oraingo honetan ere, Markeliñekoen trebezia eta gorputzekin egindako lana nahikoa da istorioa kontatzeko, hitzak berriro baztertu baitituzte.

Haurrei zuzendutako istorio honetan, biltegi bateko hiru langileak ditu abiapuntu eta protagonista Markeliñeren lan berriak. Hiru beharginentzat beste lanegun arrunt bat besterik ez da kartoi kutxak ordenatzen. Baina aspergarria egiten zaie lana eta egoera horri aurre egiteko, kutxak desordenatu eta beraiekin jolasten hasten dira.

Dibertsioak, jolasari eta bidaiari irekitzen dizkio ateak. Konturatu gabe, jolasleku bihurtu da biltegia eta hiru langileen lanorduak olgetarako garaia bilakatu dira. Hor



dabiltza hiru protagonistak kutxak gora eta kutxak behera, lana baztertuta eta sarritan haurrekin gertatzen den bezala, jolasak haserrea sortarazten du langileen artean.

Halako batean, globo bat aurkitu dute eskutartean dabilzkien kartoietan eta langileetarikoa batek, irudimenarekin zerua zeharkatuz,

bidaiak egiten hasten da. Lehebiziko abiapuntua Afrika eta ekialdeko lurralde exotikoak izango dira eta bertan bizi diren afrikarrak, fakir bat edo gamelu eta zazpi estalki saltzen ari diren mairuak ezagutzeko aukera izango dute protagonistek.

Irudimenez egindako txango

honetan, beste lurralde batzuk eza-
gutzeko aukera izango dute langi-
leok. Ipar poloa edota itsas guru-
tzaldia egiteko aukera ere izango
dute.

Egoerak eta inguruak zeharka-
tzen dituen *Kartoi-biraka*
antzezlanak, fikzioa eta errealtatea
nahasten ditu, irudimenak biltegi-
tik irten eta sartzeko aukera ematen
baitie protagonistei. Markeliñe tal-
deko kidea den Joserra
Martínez-ek baieztatu duenez «bil-
tegitik atera gabe, globo, itsasontzi
edo ganbeluan 80 kutxatan ematen
diogu munduari bira».

Honako baieztapen honek badu
lotura Jules Verne-k idatzitako
Munduari itzulia 80 egunetan,
idazle frantziarraren obra hartu
baitute Markeliñekoek antzezlana-
ren oinarritzat. Joserra Martínez-ek

aipatu duenez «*Verne-ren testuak
ikuslearekin nolabaiteko lotura
lortzeko aukera ematen digu*»,
baina *Kartoi-biraka* lanak ez du
zerikusirik idazle ospetsuaren
abentura liburuarekin.

Aktoreen lanean oinarritzen da
Markeliñek haurrentzat eginiko lan
berri hau, nahiz eta txotxongilo
zein maskarak erabili antzezlanean
zehar. Telaz soilik eginiko txotxon-
giloen bidez, *rockero atomikoa* eta
zazpi estalkidun dantza egiten
duen mairua gorpuztea lortzen
dute aktoreek. elementu hauekin,
«*irudimen magikoa lortzea eta
ikusleengan sorpresa eragitea da
helburu nagusia*», dio Joserra
Martínez-ek.

Markeliñen antzezlanean sarri-
tan gertatzen den bezala, *Kartoi-
birakak* kartoizko kutxaz osatuta-

ko atrezzo eta eszenografia nahiko
sinpleak ditu. Honen arrazoia
Joserra Martínez-ek ematen du
«*sarritan sinpleena elementu efek-
tiboena gertatzen da*» esaterakoan.

Sei urtetik aurrerako haurrentzat
zuzenduta egon arren, edonork
ikus dezakeen antzezlana da.
Markeliñeko kideak dioenez «*ikus-
leak engantxatzen dituen magia
puntua du emanaldiak eta etenga-
beko sorpresak bata bestearen
atzetik doaz*». Hiru langileen istori-
ria asperralditik badator ere, ikus-
leek ez dute aspertzeko betarik
izango. Edo behintzat hala gertatu
da publikoaz eginiko lehenbiziko
proban. Markeliñeren azken emai-
tza martxoaren zazpitik aurrera
izango da eskenatokietan, egun
horretan izango baita Zornotza
Aretoan behin betiko estreinaldia.



Euskal antzerkiaren arrakasta Tarregan

■ Milaka ikuslek gozatu dute Antzerki Ferian hemengo taldeen emanaldiekin. ■ Tirri-Tarra fanfarrearen ikuskizunak harridura sortu zuen.

Jauriaritzako Kultura Saileko laguntzarekin «Euskal Teatroa» proiektua osatzen duten sei konpainiek guztiz asebate dituzte Tarregan egiten den Antzerki Feriako ikusleak. Azoka irailaren 10ean hasi eta joan den igandean bukatu zen, eta Markeliñe, Maskarada, Agerre Teatroa, Paraiso, Kukubiltxo eta Tirri-Tarra izan dira euskal antzerkiaren aurtengo ordezkarietako batzuk.

TARREGA

Kalean hiru ikuskizun aurkeztu zituzten aipatu taldeek, Kukubiltxok «Kukubel», Markeliñek «Aló Europa» eta Tirri-Tarrak «Tirri-Tarra show», eta Tarregako plaza Nagusia kolapsatu egin zuten. Aretoan egindako beste laurak ere, Paraisoren «Mi odisea», Markeliñeren «La vuelta al mundo en 80 cajas», Maskaradaren «El cartero de Neruda» eta Agerren «María. Tres veces amapola, María», jendea antzoki barruan kabitu ezinda zegoela aurkitu ziren.

Tirri-Tarraren emanaldia izan da, beharbada, ikusleak gehien harritu dituen. Fanfarrearen ikuskizunak esketx dibertigarriak aurkezten ditu, horietan azken *drag-queen* giroan oinarritutako bat ikus daitekeelarik. Aipagarria da Tirri-Tarrak baduela dagoeneko lanerako eskaintzarik, horien artean Katalunian bira bat egiteko edota datorren udan Frantzia aldean jarduteko.

Kukubiltxok umeentzako ikuskizuna aurkeztu zuen eta ume zein heldu bereganatu zituen. Jakinarazi dutenez, Andaluzian, Katalunian eta Britainian

lan egiteko deitu diete.

Markeliñek Monreal aldera zabal dezake bere lana, eta gainera proposamen bat baino gehiago hartu du Kataluniatik ere.

«Nerudaren postaria» pozik ibili da Tarregan. Emanaldi guzti-guztietan bete du aretoa eta, ondorioz, Estatu espainiarreko programatzaile askok interesa erakutsi dute.

Paraiso Antzerkiak egindako lanak, berriz, txaloak ugari hartu zituen, eta antzezleek zazpi aldiz ere irten behar izan zuten eszenatokira, jendeak hain sutsu eskatzen zuen horiek agurtzeko. Programatzaile askok Donostiako Azokan jada ikusia zuten horien lana, eta Valentzian eta Andaluzian arituko dira aurki.

Azkenik, Agerre Teatroak Bartzelonan erakutsiko du bere lana, irailaren amaieran, eta Estatu espainiarrean barrena jarduteko eskaera bat baino gehiago egin diote dagoeneko.